



**2018KO GAZTERIAKO  
AURREKONTU PARTE-  
HARTZAILEETARAKO  
OINARRIAK.  
NAFARROAKO KIROLAREN  
ETA GAZTERIAREN  
INSTITUTUA  
NAFARROAKO GOBERNUA**

Gazteriako aurrekontu parte-hartzaileetarako oinarriak V.0.4.1

## Aurkibidea

A- Nafarroako Gobernuaren Gazteriako aurrekontu parte-hartzaileen sarrera eta justifikazioa.....	3
B- Aurrekontu parte-hartzailearen oinarrizko printzipioak.....	4
C- Aurrekontu parte-hartzailearen antolaketa.....	5
C.1- Lurralde esparrua.	
C.2- Parte-hartzaileak.	
C.3- Aurrekontu parte-hartzaileen organoak.	
C.4- Aurrekontu parte-hartzailearen faseak.	
D- Proposamenen formulazioa eta hautaketa.....	7
D.1- Proposamenak aurkezteko baldintzak.	
D.2- Nola aurkeztu proposamenak.	
D.3- Proposamenak bozketara sartzeko irizpideak.	
E- .Proposamenen hautaketa.....	8
E.1- Bozketak online.	
E.2- Bozketa aldia.	
E.3- Emaitzen jakinarazpena.	
F- Proposamenak gauatzeko sistema.....	9
F.1- Proiektuaren jarraitze eta gauatzeko taldeko kideak.	
F. 2- Bilerak noiz (zenbatetik behin) eta non.	
G- Prozesuaren ebaluazioa.....	10
G.1- Prozesuaren memoria egitea.	
G.2- Prozesuaren balorazioa: Aurrekontu parte-hartzaileen foroa.	

## **A- Nafarroako Gobernuaren Gazteriako aurrekontu parte-hartzaileen sarrera eta justifikazioa.**

Aurrekontu parte-hartzaileak tresna bat dira, baliatzen dena herritarrek parte hartu ahal izan dezaten proiektu edo politika publiko baten garapen maila guztietan, hura zehazten denetik haren ebaluazioa bitarte, aurrekontuaren kopuru jakin baten kudeaketa partekatua bitartez.

Hala bada, gobernuaren sostengatzen duten lau alderdi politikoek egindako zuzenketa baten bidez, Nafarroako Gobernuaren aurrekontuetan 30.000 €-ko kontu-sail bat (BEZa barne) bereizi zen NKGIak betearaz dezan, modu parte-hartzailean, Nafarroako gazteriarekin batera.

2018ko Nafarroako Aurrekontuetan finkatu egin dira berriro eta helburu bererako 30.000€ gehitzen dira partizipazioaren konpromezuekin.

Aurrekontu parte-hartzaileak parte-hartze tresna gisara garatuz bide ematen zaio Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 11/2011 Foru Legearen 31. artikuluari:

*"31. artikulua. Gazteak eta herritarren parte-hartzea*

*a) Ingurune egokia sortzea gazteei herritarren parte-hartzearen kulturen parte hartzen erakusteko modu berriak ezartzeko."*

Aurrekontu parte-hartzaileak, bestalde, Nafarroako Gobernuaren 2017-2019rako Gazteriaren II. Planeko Partaidetza alorreko 2. helburuari ere erantzuten dio:

*"2. helburua: Parte hartzea sustatu, aldeztu eta erraztea. Gazteen proposamenak kontuan hartzen direlako sentipena handitzea."*

Proposamen honen bitartez ezarri nahi dira NKGIak 2018. urtean abian jarriko dituen gazteriaren alorreko aurrekontu parte-hartzaile horien funtzionamendua arautuko duten oinarriak.

Gazteriaren alorreko aurrekontu parte-hartzaile hauetarako ezarritako filosofiaren arabera, Nafarroako gazteen partaidetza izanen da, fase desberdin hauetan:

- Kontu-sail horren xede izanen liratekeen proiektu proposamenak egitea.
- Kontu-sail horren bidez finantzatu litzatekeen proiektu bat hautatzea.
- Aukeratutako proiektua betearaztea.
- Ezartzen den aurrekontu parte-hartzaileen sistema ebaluatzea.

Nafarroako gazte guztiek parte har dezakete, hala proposamenak egin nola hautatzeko, bai eta aurrekontu parte-hartzaileen prozesua ebaluatu eta hobekuntzak proposatzeko ere.

Nobedade gisara, prozesu honetan gehitu da gazteei aukera ematea hautatzen den proiektua gauzatzeko fasean parte hartzeko; horretarako, lantalde misto bat eratuko da, administrazio publikoetako langileek eta hautatua gertatzen den proiektua proposatzen duten gazteek osatua.

Pertsona horiek parte hartuko dute, Administrazioarekin batera, proiektua garatzeko prozesu osoaren antolaketan eta jarraipenean.

Oinarri hauen bidez garatzen dira Gazteriaren alorreko Aurrekontu parte-hartzaileen prozesuaren antolaketa, faseak eta proposamenak egiteko nahiz erabakiak hartzeko sistemak, bai eta prozesua bera ebaluatzeko sistemaren proposamena ere.

## **B- Aurrekontu parte-hartzailearen oinarrizko printzipioak.**

Gazteriako aurrekontu parte-hartzaileen printzipioak Nafarroako Gobernuaren Gazteriaren II. Planean oinarrituak daude.

Aurrekontu parte-hartzaile hauetarako ezarritako filosofiaren arabera, Nafarroako gazteen partaidetza izanen da aurrekontuak garatzeko fase guztietan.

### **Gazte guztiei irekitako prozesua.**

Aurrekontu parte-hartzaileak Nafarroan bizilekua duten gazte guztientzat irekita egonen dira. Parte-hartzaile guztiek proposamenak egiteko eta erabakiak hartzeko gaitasun berbera dute (pertsona bat, boto bat).

### **Askoren prozesu anitza.**

Gazteriaren alorreko aurrekontu parte-hartzaileek Nafarroako gazteriaren aniztasuna islatuko dute.

### **Prozesu irisgarria.**

Aurrekontu parte-hartzaileek Nafarroako gazte guztiei berdintasunean parte hartzeko aukera emanen diete.

### **Prozesu argia eta gardena.**

Aurrekontu parte-hartzaileak argiro eta gardenki zabalduko dira, hizkera irisgarri eta ulergarria erabiliz, gazte guztien partaidetza errazteko. Gardentasuna garapenean, erregelamenduan eta edukietan.

### **Prozesu iritzi biltzaile eta loteslea.**

Gazteriaren alorreko aurrekontu parte-hartzaileek gazteen iritziak kontuan hartuko dituzte eta azkenean hartzen diren erabakiak betearaziko dira prozesurako esleitutako kontu-sailaren bitartez.

### **Kudeaketa eta erantzukizuna partekatuta**

Gazteriaren alorreko aurrekontu parte-hartzaileek erraztuko dute prozesuaren kudeaketa eta erantzukizuna partekatuak izan daitezen herritarren eta foru administrazioaren artean. Gazteek prozesu osoan parte hartzen ahalko dute: proposatzea, erabakitzea, gauzatzea eta ebaluatzea.

### **Prozesu estrategikoa eta jarraitua.**

Aurrekontu parte-hartzaileak jarraituak izanen dira; prozesuak bilduko du haien urtez urteko bilakaera eta kontuan hartuko du Gazteriaren II. Planaren garapena. Bestalde, hartzen diren erabaki eta konpromisoak bermatzeaz arduratuko den organoak etengabeko jarraipena eginen die aurrekontu parte-hartzaileei.

### **Prozesu integratzaile eta barne-hartzailea.**

Aurrekontu parte-hartzaileek gazteen partaidetzarako esparru bat sortu gogo dute, haren baitan eragile senti daitezen eta parte har dezaten Nafarroaren bizitza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalan.

### **Bidezko eta berdintasunezko prozesua.**

Aurrekontu parte-hartzaileek emakume eta gizonen ekitatea eta berdintasuna erraztuko dute prozesuaren etapa guztietan eta aurkezten diren proposamenetan.

### **Ikasketa eta hezkuntza prozesua.**

Aurrekontu parte-hartzaileek partaidetza sozialerako gaitasunak ikasi eta garatzeko gune izan nahi dute.

### **Prozesu sozialki zuzen eta solidarioa.**

Aurrekontu parte-hartzaileek justizia sozialeko eta jasangarritasuneko irizpideak txertatuko dituzten beren garapenean eta proposamenetan, Nafarroako gazte guztien mesederako.

### **Parte-hartzaileendako irabazi-asmorik gabeko prozesua.**

Aurrekontu parte-hartzaileek garatzen dituzten proiektuek ez dakarte irabazirik parte hartzen duten gazte eta entitateentzat. Kontrataziorik egin behar bada, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuak egingo du eta 6/2009, ekainaren 9, Foru Legearen mendean egongo dira.

## C- Aurrekontu parte-hartzailearen antolaketa

### C.1- Lurralde esparrua.

Gazteriako aurrekontu parte-hartzaileak Nafarroako Foru Komunitatearen mugaperako dira.

Aurkezten diren proiektuak Nafarroan garatu behar dira, nahiz eta beste erkidego batzuetako kide diren beste gazteak inplika ditzaketen.

### C.2- Parte-hartzaileak

Nafarroako gazteriako aurrekontu parte-hartzaileetarako proiektuak **aurkeztu, hautatu, gauzatu eta ebaluatu** prozesuan parte hartzen ahalko dute **Nafarroan erroldatuak dauden 14 urtetik 30era bitarteko gazteek**, bakarka edo taldeka.

Nafarroako gazteriako aurrekontu parte-hartzaileetarako proiektuak **aurkeztu eta gauzatzeko** prozesuan parte hartzen ahalko dute Nafarroan erregistraturik dauden **gazte elkarteek edo gazteekin lan egiten duten elkarte eta entitateek**.

Nafarroako gazteriako aurrekontu parte-hartzaileetarako proiektuak **aurkeztu eta gauzatzeko jarraipenaren** prozesuan parte hartzen ahalko dute beren eginkizunaren xedea gazteei zuzendutako irabazi-asmorik gabeko jarduerak egitea dela estatutuetan ezarria duten elkarte eta entitateak.

Beharrezkotzat jotzen den unean (proposamenak aurkeztea, hautatzea...) pertsona eta entitate parte-hartzaileek beren izaera frogatzeko ziurtagiriren bat aurkeztu beharko dute. Kasurako ezartzen diren ziurtagiriak erabiliko dira (NANA, pasaporteak, AIE, gidabaimena, ziurtagiri elektronikoa...), baliozkoak izan eta indarrean daudenak.

Nafarroako Gobernuak eta toki administrazioetako **gazteriaren alorreko teknikariek** parte hartuko dute proiektuen balorazio teknikoan, oinarri hauetako irizpide eta printzipioak betetzen dituztela bermatzeko. Teknikariek erabaki dezakete beharrezkoa ote den beste alor batzuetako adituek ere esku hartzea.

Hautatzen den proposamena aurkeztu duten pertsonak/entitateek konpromisoa hartzen dute parte hartzeko hautatutako Proiektua garatu eta gauzatzeko jarraipenaren taldean, zeina oinarri hauetako hurrengo atalean zehazten baita.

### C.3- Aurrekontu parte-hartzaileen mekanismoak.

Gazteriako aurrekontu parte-hartzaileen prozesua modu egokian garatzeko, zenbait mekanismo sortu behar dira.

#### 1) Mekanismo teknikoak

- Aurrekontu parte-hartzaileak bultzatzeko taldea.
- Proiektuak baloratzeko mahai teknikoa.

#### 2) Herritarren mekanismoak

- Aurrekontu parte-hartzaileen gazte foroa.

#### 3) Koordinazioko eta garapenerako Mekanismo mistoak.

- Aurrekontu parte-hartzaileetarako hautatutako proiektua garatu eta gauzatzeko jarraipenaren taldea; hemendik aurrera, Proiektua gauzatzeko jarraipenaren Taldea.

#### C.3.1- Koordinazioko mekanismo teknikoak.

Organo hauen eginkizuna da aurrekontu parte-hartzailearen alderdi teknikoak garatzea. Bi maila tekniko desberdin aurkezten dira, proiektuak proposatu eta hautatzeko prozedurak abian jarri eta garatzeari lotuak daudenak. Bigarren maila proiektuak gauzatzeari dagokio. Horregatik, bi organo planteatzen dira.

- *Aurrekontu parte-hartzaileak bultzatzeko taldea.*

Honako hauek osatzen dute: NKGIko teknikariak, Consejo de la Juventud de Navarra/Nafarroako Gazte Kontseilua (CJN/NGK) eta haiek eskatzen dituzten laguntzaileak.

Eginkizunak:

-Aurrekontu parte-hartzailearen fase bakoitzerako zehaztutako ekintzak zuzen burutzen direla bermatzea. (jakinarazpena, proposamena, balorazioa; proposamenak hautatu eta gauzatzea)

- Aurrekontu parte-hartzailearen fase bakoitzean agertzen diren arazoak konpontzea (jakinarazpena, proposamena, balorazioa; proposamenak hautatu eta gauzatzea).

- *Proiektuak baloratzeko mahai teknikoa.*

Honako hauek osatzen dute: gazteriaren arloko teknikari adituak, CJN/NGK-ren ordezkariak eta *Aurrekontu parte-hartzaileak bultzatzeko taldeko* pertsonak mahai teknikoa koordinatu eta dinamizatuko dutenak.

Eginkizunak:

- Egindako proposamenak baloratzea oinarri hauetan zehaztutako printzipio eta irizpideen arabera.

- Informatzea printzipio eta irizpide horiek betetzen dituzten proposamenei buruz.

- Informatzea proposamenei lortu duten balorazioari buruz.

#### C.3.2- Herritarren mekanismoak

- *Aurrekontu parte-hartzaileen gazte foroa.*

Honako hauek osatzen dute: gazteak eta gazte elkarten arduradunak.

Eginkizunak:

- Aurrekontu parte-hartzaileen funtzionamendua baloratzea.

- Aurrekontu parte-hartzaileen oinarriak aldatzeko proposamenak egitea.

#### C.3.3- Koordinazioko eta garapenerako Mekanismo mistoak

- *Proiektuaren jarraipena eta gauzatzeko taldea.*

Honako hauek osatzen dute: hautatua gertatzen den proiektua aurkeztu duten pertsonak/elkartek. Proiektua batera garatzeko egokitzat jotzen diren NKGIko langileak.

Eginkizunak:

- Gazteriako aurrekontu parte-hartzaileetarako hautatutako proiektua garatzea.

#### C.4- Aurrekontu parte-hartzailearen faseak.

- *0. fasea: Aurrekontu parte-hartzaileen prozesua prestatzea.*

- *Aurrekontu parte-hartzaileak bultzatzeko taldea* eratzea.

- Aurrekontu parte-hartzaileak zabaltzeko materialen diseinua (Oinarriak eta proposamen fitxak).

- *Proiektuak baloratzeko mahai teknikoa* eratzeko prestaketa eta harremanak.

- *1. fasea: Aurrekontu parte-hartzaileen zabalkundea.*

- Materialen zabalkundea.
- Proposamen bilketa.
- *Proiektuak baloratzeko mahai teknikoaren* lehenbiziko bilera. (jasotako proiektuen kopuruaren arabera).
- Koordinazio lana *Aurrekontu parte-hartzaileak bultzatzeko taldeak* egina.
- 2. fasea: *Proiektuen balorazio teknikoa eta balorazioaren argitalpena.*
  - *Proiektuak baloratzeko mahai teknikoaren* bilerak.
  - Bozketarako sartutako proiektuen jakinarazpena.
  - Bozketarako ez-gaitzat jotako proiektuen jakinarazpena, arrazoiak emanda.
- 3. fasea: *Aurrekontu parte-hartzaileen kontu-sailaren bidez betearaziko den proiektuaren hautaketa. (aste bat)*
  - Bozketak egitea.
  - Hautatutako proiektuaren balidazioa eta aldarrikapena. *Proiektuak baloratzeko mahai teknikoak* eginen du.
- 4. fasea: *Hautatutako proiektua garatzeko jarraipena eta gauzatzea.*
  - Proiektua gauzatzeko eta jarraipen taldea eratzea.
- 5. fasea: *Aurrekontu parte-hartzaileen prozesua ebaluatzea.*
  - Prozesuari buruzko memoria bat egitea (prestaketa, proposamena; proposamenak hautatu eta gauzatzea)
  - Memoria helaraztea
  - Aurrekontu parte-hartzaileen Gazte Foroa deitzea eta foroa egitea.

## **D- Proposamenen formulazioa eta hautaketa**

### D.1- Proposamenak aurkezteko baldintzak.

Aurkezten diren proposamenek bete behar dituzte oinarri hauen hasieran ezarritako printzipioak eta erantzun behar diete Nafarroako Gobernuaren Gazteriaren II. Planerako egindako gazteriaren diagnostikoan atzemandako beharrei.

#### D.1.2- Nork aurkez ditzake proposamenak?

Aurrekontu parte-hartzaileetarako proposamenak aurkez ditzakete Nafarroan erroldaturik dauden 14 urtetik 30era bitarteko pertsona edo pertsona-talde guztiek; proposamenak aurkezteko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute D2 atalean zehazten den bezala.

Nafarroako gazte elkarte eta Kolektibo guztiek ere aurkez ditzakete proposamenak; haiek ere baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute D2 atalean zehazten den bezala.

Era berean, parte hartzen ahalko dute beren eginkizunaren xedea gazteei zuzendutako irabazi-asmorik gabeko jarduerak egitea dela estatutuetan ezarria duten elkarte eta entitateak.

Pertsona batek, pertsona talde batek edo elkarte batek nahi adina proposamen aurkez dezake.

#### D.1.3- Aurkezten diren proposamenen norainokoa.

Proposamenak egon beharko dute Nafarroako gazte guztiei zuzenduak edo gazteriaren parte bati, honako baldintza hauekin:

- Proposamenek gazteen segmentu osoari irekita egon behar dute, baina gazteriaren barrenean sartzten den adin tarte jakin batekoei zuzenduak izan daitezke.

- Proposamenak Nafarroako Gobernuaren eskumeneko eta esparrukoak izanen dira eta egon beharko dute Gazteriari buruzko Legearen 2. kapituluan zehazten diren zeharkako politiketan sartuak.

- Diru-laguntzen deialdiren batean aurkez daitezkeen proposamenak baztertuko dira, eta aurkezleari deialdi horiei buruzko informazioa emanen zaio.

- Proposamenek erantzun beharko diote Nafarroako Gobernuaren Gazteriaren II. Planean atzemandako beharren bati.

#### D.1.4- Proposamenak gauzatzeko denbora.

Proposamenak 2018ko aurrekontu ekitaldian gauzatu beharko dira, urte naturalean.

#### D.2- Nola aurkeztu proposamenak.

Proposamenak aurkeztu beharko dira prozesuaren hasieran ezarritako epearen barrenean, honako hauen bitartez:

- NKGIaren online platatorma (<https://www.deporteyjuventudnavarra.es/eu>)

Proposamenak aurkeztuko dira oinarritzko inprimaki bat, labur eta betetzen erraza, betez; web del NKGIaren webgunean eskura daiteke. (Zuzeneko esteka)

Proposamena aurkezteko unean, pertsonak/entitateak frogatu beharko du, plataforma bakoitzean dauden bitartekoak erabilia, proposamena aurkezteko baldintzak betetzen dituela: 14-30 urteko gaztea edo gazte elkartea izatea.

Inongo proposamenik ez bada edota proposatutako edo aurkeztutako proposamenek oinarrietan definitutako irizpideekin betetzen ez duenik, aurkezpen aldi berria irekiko da proposamen-bilketarako NKGI-ren ohiko kanaletan (Web, Sare Sozialak...)

#### D.3- Proposamenak bozketara sartzeko irizpideak.

Proposamenek irizpide batzuk bete beharko dituzte aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan sartuak izateko. Irizpide horietakoren bat betetzen ez badute, bozketetatik baztertuko dira; halakoetan, pertsona eta entitate parte-hartzaileei jakinaraziko zaie bozketak hasi aurretik.

Proposamenen betebeharrak:

- Gazte guztiei irekitako jarduketa bat proposatzea.

- Osasunaren aurkako sustantziak, zuzenki nahiz zeharkakoen kontsumoa, suposa ez dezaketan legezko jarduketak proposatzea.

- Nafarroako Gobernuko eskumenekoak diren jarduketak proposatzea, ez inbertsioak ezta suntsikorrak ez diren ondasunen eskuratzea ekartzen dutenak.

- Proposatzen den jarduketaren aurrekontuak (Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuak eginda) ez du gainditu behar gehieneko kopurua (9.500 € BEZa barne) eta ez da 6.000 € baino gutxiago izanen.

- Herri bat baino gehiagoko gazteak inplikaturiko dituen jarduketa proposatzea.

- Aurreko urteko aurrekontu parte-hartzaileetan hautatua izan ez den jarduketa berri bat proposatzea.

- Proiektua proposatzen duten pertsonak/entitateek proiektua garatu eta gauzatzeko jarraipena parte hartzeko konpromisoa sinaturik eduki beharko dute. (prozesuaren kudeaketa eta erantzukizuna partekatuak izanen dira).

Gazteekin lan egiten duten entitateen kasuan, pertsona gazteko presentzia beharrezkoa izango da konpromezu honetan.

### **E- .Proposamenen hautaketa**

D1.3 atalean zehazten diren irizpidea betetzen dituzten proposamenen artean, online egindako bozketetan boto kopururik handiena lortzen duen proiektua hautatuko da.

#### E.1- Bozketak online.

Proposamenak online bidez bozkatuko dira, NKGIaren webguneko plataforma erabilia. Bozkatzeko sistema plataforman bertan azalduko da, bozketak hasi baino lehen.

Online bidezko bozketetan parte hartzen duten pertsonak proiektu bati baino ezin diote botoa eman.

#### E.2- Bozketaldia.

Bozketak bi astetan egiten ahalko dira.

Aurrekontu parte-hartzaileen prozesuaren hasieran jakinaraziko da noiz izanen den bozketarako astea.

#### E.3- Emaitzen jakinarazpena.

Bozketen emaitza NKGIaren webgunearen bidez jakinaraziko da.

Aurkezten diren proposamenen azken balorazioa jendaurrera aterako da 10 eguneko baino gutxiago epean eta ofizialki jakinaraziko zaio proposamenean harremanetarako hautatutako pertsonari.

### **F- Proposamenak gauzatzeko sistema**

Gazteriari buruzko legearen gidalerroei eta oinarri hauen printzipioei jarraikiz, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu parte-hartzaileen helburua da herritartasunaren eraikuntzan eta gazteen politika publikoekiko erantzukidetasunean sakontzea.

Horrek berarekin aurrerapena dakar parte-hartze politikan, gazteei aukera emanaz parte hartzeko:

- zehaztapenean/proposamenean
- proposamenen hautaketan
- hautatzen den proposamena gauzatzeari lotutako kudeaketan.

Proposamena garatzeko jarraipenaren kudeaketan erantzukidetasuna ezarriz, lantalde bat artikulatzea lortzen da, hautatua gertatu den proiektuko gazteen eta administrazio publikoen artean. Lantalde honek eraginkorra izan behar du eta gazteei erraztu behar die bertan izateko aukera.

Talde honek proiektuaren egite mekanismoa aukeratuko du eta aurrekontuen ebaluaketaren irizpideak eta proiektu teknikoak, kontratazioa NKGI-ren kontratazioaren bat egon bada. Kontratazio hauek Foru Legearen kontratu publikoren irizpideak beteko dute.

#### F.1- Proiektuaren gauzatze jarraipenaren taldeko kideak.

Taldeak ongi funtzionatzeko, gehienez ere 8-10 pertsonaz osatua egon beharko luke. Bestalde, administrazio langileen ordezkari eta gazteena orekatua izan beharko litzateke jende kopuruari dagokionez. Desoreka, izatekotan, hobe izatea herritarren aldera ezen ez teknikarienera.

- Hautatua gertatu den proiektua aurkeztu duten gazteak eta/edo elkarteak.
- NKGIko teknikari adituak, toki entitateetako gazteriaren arloko teknikariak eta CJN/NGK.

- Gazteek eskatzen dituzten teknikari adituak eta/edo teknikariak. Kasu jakin batzuetarako, edo modu finkoan.

#### F.1- Proiektuaren gauzatze jarraipenaren taldearen eginkizunak.

Honako hauek dira talde honen eginkizunak:

- Hautatzen den proposamena egokitzea proposamena gauzatzeko dagoen denborari.
- Eskakizun tekniko-finantzarioak aztertzea eta berriz doitzea, beharrezkoa bada.

- Beharrezkoak diren laguntza teknikoen kontratazio prozesuak aztertzea.
- Informatzea administrazio publikoak egindako lanei buruz eta hartutako konpromisoen arabera gazteek egindakoei buruz.
- Proiektuaren garapena jarraitzea.
- Prozesua ebaluatzea.

F. 2- Bilerak noiz (zenbatetik behin) eta non.

Bileren toki eta orduak gazte taldeekin adostuko dira, haien bizilekuak eta ordutegiak kontuan hartuta. Bilerak lanegunetan egingen dira.

Lehenbiziko bileran finkatuko da gainerako egutegia; talde bakoitzak egin behar duenaren arabera zehaztuko da, baina gutxienez ere hiru bilera izanen dira. (proiektuaren hasieratarteko egoera-amaiera).

## **G- Prozesuaren ebaluazioa.**

Aurrekontu parte-hartzaileen garapenean inplikaturiko eragile guztiek ebaluatuko dute haien prozesua, fasez fase. Horretarako, lan tresna hauek ematen dira:

G.1- Prozesuaren memoria egitea.

Memoria egiten da prozesuaren garapenari buruzko informazio guztia bildu eta sintetizatzeko, ebaluazioa egiteko garaian esku hartzen duten eragile guztiek informazio berberaren jabe izan daitezen.

Memoriak atal hauek izan beharko ditu:

- Prozesua prestatzeko ekintzak. (Deitutako pertsonak, bilera kopurua, zabalkunderako materialak...)
- Proposamen prozesuaren garapena (egutegia, aurkeztutako proposamenen kopurua eta tipologia bat, onartutako proposamenen kopurua eta baztertutako proposamenen kopurua eta zergatik; proposamen prozesuan gertatutako gorabeherak)
- Hautaketa: hautaketa prozesuaren azalpena, parte-hartzearen azterketa eta gertatu diren gorabeherak.
- Gauzatzea: prozesuaren azalpena; gauzatze eta jarraipenean izandako parte-hartzearen azterketa; gertatutako gorabeherak)

G.2- Prozesuaren balorazioa: Aurrekontu parte-hartzaileen foroa.

G.2.1. Aurrekontuak garatzen dituzten organoetan parte hartzen duten pertsonen memoriari egindako ekarpenak, galdetegi eta talde dinamiken bidez.

G.2.2- Aurrekontu parte-hartzaileen foroa.

Parte-hartzaileak: aurrekontu parte-hartzaileetan interesa duten pertsona guztiak.

Eginkizunak: balorazioa eta hobekuntzarako proposamena, gerora egingen diren hurrengo aurrekontu parte-hartzaileei begira.

Gazteekin egiten den aurrekontu parte-hartzaileen foroa bilduko da kasuan kasuko deialdiaren oinarriak balidatzeko eta proiektua edo proiektuak ebaluatzeko.